



KIROLEKO INDARKERIAREN AURKAKO EUSKAL BATZORDEAREN 2019KO URRIAREN 30EKO BILERAREN AKTA

Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordeak bilera egin du Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan, 2019ko urriaren 30ean.

Honako hauek izan dira bileran:

- *Bingen Zupiria Gorostidi*, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua.
- *Jon Redondo*, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria.
- *Pablo de Oraá Oleaga*, Arabako Foru Aldundiaren Kirolaren zuzendaria
- *Gerardo Escarza Guridi*, Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- *Kepa García*, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- *Juan José Gude Prego*, Euskal Kirol Federazioen Batasunak izendatuta.
- *Vicente Arenillas*, Ramón Estankonaren ordezkari, Segurtasun Sailak izendatuta, segurtasunaren arloan prestigio handia duen pertsona baita.
- *Aitor Uriarte Unzalu*, Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun zuzendaria.
- *Marian Ispizua*, euskal arlo zientifiko unibertsitarioan prestigio handia duen pertsona.
- *Iker Ugarte*, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako funtzionarioa, idazkari lanetan, ahotsarekin baina botorik gabe.
- *Jon Iriberry*, Eusko Jaurlaritzako Hobekuntza Teknikorako Zentroaren teknikaria. (Gonbidatu gisa)

Honako hauek ezin etorria adierazi dute:

- *Goizane Alvarez Irijoa*, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteriako eta Kiroletako Zuzendari Nagusia.
- *Beatriz Arregui Gamir*, Euskal Kirol Federazioen Batasunak izendatuta

10:30etan hasi da bilera, Bingen Zupiria jauna presidente dela eta hau sinatzen duena idazkari dela, gai-zerrendan jasotako honako gai hauek aztertzeko:

1. – 2019ko otsailaren 6ko bilerako Aktaren onarpena.
2. – 2020rako lantaldearen eta “planning”-aren aurkezpena.
3. – Futbol oinarriko indarkeriaren monitorizazio sistemaren aurretiatzko emaitzak.
4. – Komunikaziotiko kiroleko bortizkeriaren aurkako prebentziorako gidaliburuaren garapen egoera.
5. – Deustuko unibertsitateko abenduaren 11ko jardunaldiaren aurkezpena.
6. – Norberak lekarkeena.

1.- 2019ko otsailaren 6ko, aurreko bilerako Aktaren onespena.

Akta objekziorik gabe onartzen da.

2.- 2020rako lantaldearen eta “planning”-aren aurkezpena.

Jon Iriberrik, Kirolaren Euskal Eskolako arduradunak, aurten egindako lanaren eta datorren urtean egin beharreko aurreikuspenaren azalpena egin du, Batzorde honek aurreko bileretan planteatutako eskakizunetan oinarrituta.

Proiektu osoa diseinatu da interes-taldeen parte-hartzearekin (ekimen pribatua – Federazioak, kirol-erakundeak, eskola-erakundeak – unibertsitate ekimena eta erakunde publikoak).

Lana hiru enpresaren lankidetzarekin egiten da: “Campus Deportivo”, datuak biltzeaz arduratzen dena; “Deportivity”, datu horiek tratatzen dituen; eta “Wats”, “Prestakuntza-txertoak” diseinatzen eta aplikatzen dituen enpresa.

Aurkeztutako proiektua hiru atal nagusitan oinarritzen da: analisia, diagnostikoa eta “prestakuntza txertoak”. Oraingoz futbolera mugatzen da, eta Euskadiko Futbol Federazioaren menpe dauden kategorietan.

Datuen bilketa masiboan (big data) oinarritzen da azterketa, Euskadiko Futbol Federazioko Epaileen Elkargoaren laguntzarekin. Partidu bakoitzaren aktan jasotzen dira, eta datu-basera iraultzen dira, berehala eskuragarri edukiz.

Bildutako datuen diagnostikoak esan nahi du zehaztea zer erakunde, zer zaletasun, zer arbitro edo zer joko-zelaitan gertatzen diren indarkeriazko gertaera garrantzitsuak, eta horiei tratamendua jarri beharko zaie.

Tratamendu hori banaka diseinatu eta aplikatuko du (2019ko amaieratik aurrera) Watsek, “Prestakuntza-txertoak” izenekoan. Diagnostikatzen den kasu eta

egoera bakoitzerako "ad hoc" planteatuko dira. Ondoren, jarraipena egingo da, haren irismena eta eragina kontrolatzeko, eta, horretarako, zenbakizko adierazleak sartuko dira.

Azalpenean zehar, Marian Ispizua andreak eta Arabako eta Gipuzkoako Aldundiek "txerto" horiek diseinatzeko eta aplikatzeko prozesuari buruzko informazio gehiago eskatu da.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak datuak biltzeko proiektuaren eta Eusko Jaurlaritzak egindakoaren arteko bateragarritasuna planteatu du. Jon Iriberrik azaldu du dagoeneko kontsulta egin dela, eta guztiz bateragarriak direla.

Analisi, diagnostiko eta "txertoen" sistema hori beste kirol batzuetara zabaltzeko aukera ere aipatu dute, baina zehaztu dute hobe dela futbolarekin bakarrik jarraitzea, ahal bada, liga kopurua handituz. Futbolean emaitza fidagarriak izan ondoren, gainerako kiroletan sistema hori erabiltzeko aukera aztertuko da.

3.- Futbol oinarriko indarkeriaren monitorizazio sistemaren aurretiazko emaitzak.

Joan den denboraldiaren amaierari eta honetatik eramaten denari buruzko datuak bildu dituzte. Datu kopuru handia badago ere, oraindik goiz da azken ondorioak ezartzeko.

Aldez aurretik, indarkeriazko egitateak dituzten eta "txerto" horiek aplikatu behar zaizkien agente eta egoera jakin batzuk detektatu dira.

4.- Komunikaziotiko kiroleko bortizkeriaren aurkako prebentziorako gidaliburuaren garapen egoera.

Gida izan daitekeenaren "beta test" bat aurkezten du Jon Iriberrik. Iazko azterketan jaso zen Batzordearen mandatua dela gogorarazi du.

Gida honek indarkeriaren prebentziozko izaera duen liburu zuria izan nahi du. Kazetari talde batek egiten du, baina hainbat interes-talde parte hartu nahi dute, hala nola kazetariak (profesionalek eta izateko bidean daudenek); klubek eta taldeek; irakurleek. Kirol Prentsaren Euskal Elkartearekin elkarlanean aritzeko ahalegina egin da, arrakastarik gabe, nahiz eta ez den baztertzen gerora ere elkarlanean aritzea.

Komunikazio-gida interaktibo bat sortzen saiatuko gara, benetako kasu praktikoekin, bideoekin eta kontsulta-dokumentuekin.

Gida multimedia eta interaktiboa izan nahi du, ez estatikoa, eta hedapenerako hedabideen, klubetako prentsa-buruen eta adierazgarritasun handiagoa eman diezaioketen figura guztien laguntza eskatuko da.

Marian Ispizua andreak eskatu du Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean horren berri emateko, bertako kideak, irakasleak eta ikasleak, gidan inplikatzeko.

5.- Deustuko unibertsitateko abenduaren 11ko jardunaldiaren aurkezpena.

Jon Iriberrri jaunak aurrera jarraitzen du, baina oraindik erabat itxi gabe dagoela adierazi du. Egindako beste jardunaldi batzuen arrakasta azpimarratu du, eragile eta interes-taldeen parte-hartzearekin. Egindako lanen erakusketa bat eta jardunbide egokien adibideak egongo dira, baita Batzorde honetan egindako lanaren publizitatea ere.

6.- Norberak lekarkeena

- Galderen eta eskaeren atalean sartu aurretik, Aitor Uriarte Joko eta Ikuskizun zuzendariak bere sailak bildutako datuak azaldu ditu, eta iazkoarekin alderatu ditu. Laburpena: jaitsi egin da indarkeriazko gertakariengatik espedienteen kopurua, aurten futboleko Europako lehiaketarik ez egotearekin lotuta. Igo egin dira alkohol-eta droga-kontsumoagatik espedienteak, kirol-esparruetara sartzeko kontrolen segurtasuna hobetzeagatik. Ia espediente guztiak zabaltzen dira futboleko.
- Pablo Oraa jaunak eskatu du alderdien ordua gehitzeko txostenetan, eta Jon Iriberririk esan dio dagoeneko egiten dela. Halaber, komunikabideetan kanpaina bat egiteko eskatu du, baina "besteren lotsan" oinarrituta, indarkeriazko ekintzak egiten dituztenen jokabide txarra adieraziz.
- Kepa García jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak, datu gehiago eskatu ditu, haiek jada abian jarrita dituzten proiektuak baloratu ahal izateko.
- Bingen Zupiria jaunak adierazi du balioa eta zabalkundea eman behar zaiola kirol-jarduera gehienak baketsuak izateari, eta hori izan daitekeela abenduaren 11n egin beharreko jardunaldiaren mezu nagusia.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 12:10ean amaitu da bilkura, eta nik, idazkaria naizen aldetik, akta hau egin dut, edukiaren fede emanetz.

ONTZAT EMANA: BINGEN ZUPIRIA
GOROSTIDI
(Bileraren buru, Eusko Jaurlaritzako
Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua)

SIN.: IKER UGARTE TUTOR
Kiroleko Indarkeriaren Aurkako
Euskal Batzordearen idazkari-
lanetan